



BALORE PROPOSAMENAK

Gure dendan salduko ditugun materialak Pikler metodologiaren eskutik datoz. Hauek dira Pikler metodologiako jostailuek asetzen dituzten behar nagusiak:

- **Garapen motorra:** Pikler metodologian erabiltzen diren jostailuak haurren garapen motor lodi eta fina sustatzeko diseinatuta daude, gainera jostailu edo material hauek, esperimentatzeko aukera ematen diete.
- **Estimulazio sentsoziala:** Jostailuek haurraren zentzumenak estimulatzeko funtzioa ere betetzen dute. Ehundurak, koloreak, soinuak eta mugimenduak funtsezkoak dira Pikler jostailuen diseinuan.
- **Autonomia sustatzea:** Pikler metodologiaren printzipio nagusietako bat da haurrak modu autonomoan jarduteko aukera izan behar dutela. Jostailuak haurrak manipulatu ahal izateko pentsatuta daude, heldu batek etengabe esku hartu behar izan gabe.
- **Garapen kognitiboa eta sormenarena:** Pikler jostailuak sormena sustatzeko eta arazoak konpontzeko ere diseinatuta daude. Muga gutxi eskaintzen dituzte, eta aukera ematen diote haurrari hainbat modutan jolasteko, bere interesaren eta gaitasunaren arabera.
- **Segurtasun emozionala:** Jostailuek ere, Pikler metodologiaren arabera, ingurune segurua eta lasaia sustatzen dute, eta haurrak jolastu egiten du, prezioa edo murriztua sentitu gabe.
- **Helduekiko errespetuzko harremana:** Jostailuek autonomia ahalbidetzen duten arren, Pikler metodologiak haurraren eta helduen arteko errespetuzko harremanaren garrantzia ere azpimarratzen du. Jostailuak haurrak modu independentean miatzeko tresna dira, baina helduak modu behatzailean egon behar du bertan.

Gure enpresak izango dituen **balore proposamenak** hurrengoak dira: marka/statusa, eskuragarritasuna, prezioa eta arriskua murriztea.

- **Markari edo statusari** dagokionez, Pikler marka, hezkuntzaren munduan ospetsua da, bere metodologia garrantzi handia eduki duelako munduan zehar.
- **Gure produktuak Eskuragarritasuna** erraztuko du bezero jakin batzuen esku bakarrik zeuden produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera ematea.
- **Prezioari** dagokionez, gure produktuak prezio lehiakideak baino prezio baxuagoan eskainiko ditugu, berziklatutako materialak erabiliko ditugu jostailu berriak egiteko eta ondorioz prezioak eskuragarriagoak izango dira
- **Arriskua murrizteari** dagokionez, produktu bat puskatzerakoan guk eskainiko diogu konponketa edo berri bat.